



Jorge Ozcáriz



Fernando Pratsekin berbetan...

ECOCITIES, ETORKIZUNeko HIRI-PAISAIK

20102011

Mendi Ingeniaria. Vitoria-Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko zuzendari oha. COMAV, S.L. (Consultoría y Medio Ambiente Vitoria) enpresaren bazkide sortzailea.

Azken hogeitau urteetan, erantzukizuneko karguak bete ditu Herri Administrazioan, eta besteak beste, Vitoria-Gasteizko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko Lurralde Informazioko Sistemen Arloko buru (1989-1999), Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen Saileko zuzendari (1999-2003), Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko zuzendari (2003-2006) eta Iraunkortasunaren Behatoki zuzendari (2006-2007) izan da.

Epealdi honetan Vitoria-Gasteiz eta Arabarako proiektu estrategiko ugari sustatu eta garatu ditu, eta horien artean: Vitoria-Gasteizko Ingurumen Informazioko Sistema (SI@M) eta GMES-GUS (Global Monitoring for Environment and Security-Urban Services) eta DIVERS proiektuak definitu, garatu eta ezartzea: Informazioa, lehiakortasuna eta iraunkortasuna hiri-sistemetan; Vitoria-Gasteizko Agenda 21eko Ingurumeneko Ekintza Planaren koordinazioa (2002-2007); Ingurumena Babesteko Nazio Batzuen Programako (PNUMA) GAP (Global Action Plan) Programari atxikitzea; Arabako Lurralde Historikoko Mendi eta Basoen Plan Orokorren aurreproiektua; Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Aparten Katalogoa prestatzea; Arabako Lurralde Historikoko Ekologia eta Paisaiaren Konektibitateari buruzko azterlana. Espazioak mugatzea eta Kontserbazio eta Lehengoratzeko Estrategia lantzea; Global Environment Outlook (GEO) Vitoria-Gasteiz proiektuaren Aurrerapena idaztea.

2008. urtean enpresa pribatura (COMAV, S.L.) itzuli zen, ingurumen-proiektuen aholkulari-eta kudeatzaile-lanak betetzera, eta bertan dihardu gaur egun. Arlo honetan, COMANA Fundazioak eta Centro Complutense de Estudios e Información Medioambiental zentroak argitaratutako honako txosten hauek egin ditu, Fernando Prats-ekin elkarlanean: Cambio Global España 2020's eta Cambio Global España 2020/50.

Arkitekto Hirigilea. AUIA (Arquitectos Urbanistas e Ingenieros Asociados, S.L.) enpresaren bazkide sortzailea eta Universidad Complutense de Madrid Fundazio Orokorren Cambio Global España 2020 programarako aholkularia.

César Manrique eta Doñana Fundazioen aholkulari, OMTko (Turismoaren Munduko Erakundea) kontsultore eta AECIT (Turismoko Aditu Zientifikoen Espainiako Elkarte) eta ECOTRANS (European Network for Sustainable Tourism Development) elkarteetako kide da. Gainera, ibilbide luzea egin du tokiko garapen, ingurumen, lurralde-antolamendu, turismo eta hirigintza-planeamenduen arloan eta epimahaikide, aholkulari zientifiko eta txostengile gisa esku hartu du Europako Kontseiluaren, Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren, Turismoaren Munduko Erakundearen eta Europar Batasunaren hainbat lehiaketa eta hitzalditan. Gaur egun, Iraunkortasuneko Praktika Egokiak baloratzeko (Praktika Egokiak Dubaiko Nazioarteko Lehiaketa) UN-Habitat Batzordearen Espainiako Aditu taldeko koordinatzailea da.

Bere lan garrantzitsuen artean honako hauek nabarmendu behar dira: Lanzarote Antolatze Uhartea (1991-2003); Calviako Tokiko Agenda 21 (1996-2003); "Lanzarote en la Biosfera" Estrategia (1997-2004); Doñanako Turismo eta Lurralde Estrategia (1998-2004); Espainiako hiri-garapen iraunkorrerako estrategiaren definizioa (2000-2006); Hiri iraunkorrak (Garapen Iraunkorrerako Espainiako Estrategia) (2001); Kordobako Plan Estrategikoa (2003), Andaluziako Jomuga Turistikoetarako Tokiko Agenda 21-en Plan Pilotua (2003) eta Espainiako Eraikuntza Iraunkorri buruzko Liburu Zuria (2005).

Bere ibilbide luzearen ondorioz sari anitz jaso ditu, hala nola: FUHEM-en Ingurumen Saria (1982); DRAGO de ORO Munduko Saria Lanzaroteko Uhartearen Planari (1998); IBA 1996 Nazioarteko Esperientzia Saria "Gran Sur Metropolitano de Madrid" lanari; Europako Hiri Iraunkorrak Saria (1998), Green Globe Award (1998), Udalerri Ekologikoa (1999), Johannesburg (2002) eta Habitat (2003), Calviako Agenda 21-ari.

Itxura guztien arabera, historiako ekonomiaren goraldirik garrantzitsuentzat jo denaren ostean, konplexutasun eta zalantzez betetako garaia aurre egiten ari gaitzaikio, eta horretan, etorkizuneko eronkak behar bezala identifikatzea funtsezkoa da gizartearentzat, oro har, eta, bereziki, gizartea eta espazioa antolatze bere zentroentzat, hau da, hirientzat.

Beraz, ekonomiaren erredukzionismo samar batek baldintzatutako ikuspegi bano, paradigma aldatzeari ekin behar zaiola dirudi, aldaketa horretan, gizarte-premiak biosferaren bizi-zikloak aldi berean errespetatuz ebatzirik. Hiriak giza sistemaren funtsezko piezak dira planetan eta, Aldaketa Globala izena hartu duenaren aurrean, hiri-estrategiak birformulatzea eskatzen dute.

Gogoratu behar da hirien eraginkortasuna gero eta txikiagoa dela eta, gero eta gehiago, energiak, lurzorua, baliabideak eta hondakinak sortzen dituzten kostu bideraezinak pairatzen dituzten ekosistema ireki bezala funtzionatzen dutela; kontsumo eta ingurumen-inkaptu handiko bizimoduak eta hiri-harremanak proiektatzen dituztela; eta beren lurraldeak gainditzen dituzten eta dagozkien inpartuak beste espazio eta garai batzuetara esportatzen dituzten aztarna ekologiko eta energetikoak sortzen dituztela. Hain eszenatik konplexu eta erabakigarriaren aurrean, litekeena da begirada altxatu eta gure hirietan paradigma, helburu, eta ekintza-plan berriak definitu behar izatea. Ekohiria ilusio honen isla da eta, etorkizuneko bere funtzionamendu logikoa, marko antolatu bat bezala defini liteke, hurbilketa kosmetikoak alde batera utzita. Elkarrizketaren protagonista nagusiek, Hiri Iraunkortasunaren Estatu Globalaren alde egitea proposatzen dute: **"Hiri Iraunkortasunaren Estatu Global baten diseinuan lan egitea baliagarria litzateke ziklo-aldaketa historiko horretarako, gure herrialdearen tokiko kompetentzia zabalei (lurzorua, hiri- eta landa-plangintza, eraikuntza, mugikortasuna, hondakinak, ura, etab.) ahalik eta etekinik handiena atez, eta gainera, hamarkada espekulatiboa positiboan gainditzea bezain beharrezkoa den zerbaitean, egiazko aurrerapauso bat emateko erreferentzia izan daitekeela".**¹

Paisaiaren Elkarrizketen helburu orokorraz, eta bereziki, paisaia terminoak sorrarazten dituen ikuspegi eta ikuspuntu ezberdinen inguruko gizartearen sentsibilizazioaz gain, hainbat helburu berezi eta elkarrekin aztertu eta eztabaidatzeko gaiak planteatzen dira deialdi honetan, besteak beste:

- Aldaketa Globalari eta horren hiriekiko harremanari buruz. Zergatik dira hain garrantzitsuak hiriak?
- Egungo hiri-sistemen iraunkortasun ezari buruz.
- Aztarna ekologiko globalaren beharrezko murrizketarekin koherenteak diren hiri-paradigma berriei buruz.
- Etorkizuneko hiri ulertzeko moduan erreferentziazko printzipio berrien beharrezko definizioari buruz: ekosistema berezi gisako ikuspegi integratua eta, besteak beste, nahikotasun, ekofizientzia, ekitate, ardura, koherentzia edo biomisesi, gobernantza berri, berme publikoko printzipioak.
- Hiri-kultura sozialago eta parte-hartzaileago baten beharrezko sustapenari buruz, hiri-ereduaren aldaketaren hastapen gisa.

1 Txostena: Cambio Global España 2020/50. Programa Ciudades. (2009)

DOAKO IZEN-EMATEA paisaje@ehu.es | 945003350

ciclosdepaisaje.com

PAISAIAREN
ELKARRIZKETAK
2010EKO IRAILA

HILAK 16, OSTEGUNA | 19:00
GRADU ARETOA

LETREN FAKULTATEKO
IIPV/EHU
Paseo de la Universidad 5
Vitoria-Gasteiz

Cambio Global España 2020/50
Programa Ciudades
www.cambioglobal.es

Global Change: Future Trends
Today's World
www.globalchange.com

Laboratorio Internacional
en Cambio Global
www.lincg.uc-csic.es

United States Global Change
Research Program
www.globalchange.gov

United States Geological Survey
geochange.er.usgs.gov

Unidad de Cambio Global
www.uv.es/ucg

International Geosphere-
Biosphere Programme
www.igbp.net

Global Change Biology
www.wiley.com/bw/
journal.asp?ref=1354-1013